



1.- Etxean kontu kantari

Haurrak jaio aurretik hasten gara gure hurrekin hizketan, kantu txikiak kantatzen... Eta jaiotzen denetik aurrera hitz jolasak erabiltzen ditugu harekin harremanak sortzeko. Adinik txikienetan, hitz jolasen bidez, lotura afektiboak estutzen ditugu, gorputza arakutzen laguntzen diogu eta hizkuntzaren erritmoa transmititzen diogu. Joko unibertsal bat aurkezten dizuegu gaurko sailari sarrera emateko: *Txalo-txalo txalotxin*, haur txikiarekin gozatzeko aukera ematen duena. Jarraian, adin tarte zabal batean erabiltzeko kantu alai bat: *Txoritxo pintto-pintto*, umore onez autoan edota ibilbide batean kantatzeko aproposa. Ipuin bat gozatzeko aukera ere eskaintzen dizuegu tradiziozko euskal ipuin baten bidez: *Makila Kixki*. Pikardia eta umorez betea dago ipuin hau; lehendabizi, behin eta berriz ahoz kontatu ipuina, eta ondo ulertzen duen unetik aurrera haurrak entzungo du nahi izanez gero.

Gozatu kantuz eta kontuz!

2.- Ipuinez ipuin

Irlandara bidaiatu dugu gaurkoan ipuin bila. Bertan ipuin miresgarriek eta haien transmisioak bizi bizirik dirau oraindaino. Irudimen unibertsala aberastu dute haien pertsonaia miresgarriek. Egungo bide miresgarriak askotan haien mitologian oinarritzen dira. Leperchaun txiki baten amarrua kontatzen da bertan, baserritar batek iratxo txikiaren urrea nahi eta... Gure proposamenari *Azenario soroa* deitu diogu.

Abrite portas, klis-klas!

3.- Gela barnean

Atal honetan, poesiari atetxo bat irekitzen diogu aldiari behin –gela guztietan ez bezala–, han egunero ireki behar baitiugu. Poesia eta haur txikiak aipatzen ditugunean jolasa datorkigu burura: soinua, doinua, erritmoa, mugimenduzko jolasak... Lan handia egin dugu tradiziozko egiturak berreskuratu eta erabiltzearen alde, baina inola ere ez ditugu alde batera utziko eguneko ekarpen ederrak. Hizkuntzaren soinua, doinua, erritmoa eta jokoaz gozatzeko eredu berriak eta aukera ezin hobeak. Proposamen bat: aspaldian argitaratu zena *Hiztegi Jolastia*, haren ondoan, labetik atera berri den *Ilargian kulunkantari* saila. Adin tarte desberdinetan, kusi, gozatu eta dibertitzeko liburuak. Ondo pasa!!!

4.- Egitasmoa martxan

Bularretik Mintzora egitasmoak, 6 urteetan egindako ibilbidean *emaitza kuantitatiborik onenak* jaso ditu. Urte hauetan egindako bide luze eta aberatsean, asko eta asko dira gurekin batera egitasmoa indartzen lagundu diguten liburutegi, ikastetxe, haur-eskola eta osasun zentroak. Hauetan, denetan, 0-8 urte bitarteko umeen irakurketa ohiturak sustatzeko, irakurketa jardueren ereduak eskaintzen eta ekimen interesgarriak proposatzen jardun dugu. Oraingoan, eskola-umeen gurasoak izan dira beren ekarpenak oparitu dizkigutenak. Jasotako galdetegi emaitzak, ezin hobeak izan dira eta neurrikoa izan da sortu digun poza, izan ere urte hauetan guztietan egin den lanaren isla baitira. Bizi bedi Bularretik Mintzora, bizi bedi luze eta osasuntsu!

Buletina hileroko e-postaz jaso ahal izateko izena eman gure webguneko [Guraso Berriak](http://www.guraso-berriak.org) atalean. Informazio gehiago: www.bularretikmintzora.org eta www.galtzagorri.org